

## Dokumental proiektzioa eta eztabaida– **ARALAR, Mundua leku den lurra**

**Noiz:** 2018ko abenduaren 5ean (asteazkena), 11:45etan

**Non:** Fakultatearen Paraninfoan

Landarlan Ingurumen Elkarteak eta ON Produktzioak etxeak "Aralar, mundua leku den lurra" dokumentala osatu dute, bertako ondare natural eta kulturala bere osotasunean ezagutarazteko asmoz. Orain arte Enirio-Aralar parke naturalari buruz egin den lanik ikusgarri eta osoena, zalantzarik gabe. Proiektua Aralar mendia gizartera gerturatzeko leiho bat da, ikusleak bertako haran, baso, gaindegi, larre, barrunbe, osin eta arroketan ezkutaturiko altxorak ezagutzeko gonbidapena.

Aralarko irudi ikusgarriak jaso dira ikus-entzunezkoan, baina baita etxe honetako zein kanpoko hainbat adituren azalpen teknikoak ere. Hala, Aralarren geologia eta ura, fauna eta flora, historiaurrea eta historia hurbila da hizpide. Pello Ramirez musikari ordiziarrak egin du soinu banda. Zuzendari taldea berriz, Iban Toledo, Garazi Auzmendi, Ion Fontenla eta Aloña Jauregi goierritarrek osatu dute.

Aralarko ondare natural eta kulturalaren leiho izateaz haratago, hausnarketa eta gogoetarako bide ematen duen pelikula da. Adituen adierazpenek eta mundu oniriko bateko pasarteek, Nafarroa eta Gipuzkoaren mugan dagoen mendilerro honen balioa ezagutzera ematearekin batera, kontserbaziorako deia egiten da.



**EUSKARALDIA**

11 EGUN EUSKARAZ  
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra